

## “Futbol monitore ikastaroetarako neskontzako beka-deialdiaren” oinarriak

- 18 eta 22 urte bitartekoa izatea (1993-2000 bitartean jaio izana)
- Arabarra izatea edo Araban enpadronatua izatea duela hiru urtetik
- Araban enpadronatua ez bada: gaur egun monitore, kirol entrenatzaile edo Arabako klub, elkarte edo kirol eskola bateko kirolari federazio-lizentzia izatea; eginkizun hori bertako klub, elkarte edo eskoletan gutxienez hiru denboralditan bete izanaz gain
- Beka-eskaera betetzea 2018ko irailaren 20a eta 29a bitartean, [www.siquiero.eus](http://www.siquiero.eus) web orrian
- Behin ikastaroa egin ostean edo ikastaroak dirauen bitartean, beka eskatu duen pertsonak praktikak egingo ditu futbol talde batean, berak aukeratuko duen taldearen entrenatzailearekin batera. Praktikak egiteko talderik ez balu, taldea bilatzen lagunduko zaio.
- Klaseen % 90a joateko konpromisoa hartzea idatziz, eta praktikak egitea.
- Beka onartzearekin batera, bekadun pertsonak baimena emango dio Futbol Entrenatzaileen Arabako Eskolari ikastaroan izan duen parte hartzearen jarraipena helarazi diezaion Vital Fundazioari
- Eskatzaileek aurreratu egin beharko dute Futbol Monitore ikastaroaren prezioa eta itzuli egingo zaie praktikak amaitzean, beti ere Vital Fundazioak egindako jarraipen txostena aldekoa bada
- Eskatzaileek, adin nagusikoak, egunean izan beharko dituzte Administrazio Publikoarekiko eta Seguritate Sozialarekiko zerga betebeharren ordainketak
- Eskatzaileek Sexu Izaerako Delituen Ziurtagiria aurkeztu beharko dute
- Behin ikastaroa eginda, ikastaroari buruzko memoria eta aukeratutako klubean praktikak egin izana jasoko duen txostena aurkeztu beharko dute
- Aurretiaz zehaztutako konpromisoak bete ezean, eskatzaileak ez du jasoko Vital Fundazioak eskainitako laguntza-poltsa
- Arabako Futbol Federazioak bertan sartzeko eskatzen dituen eskakizun guztiak bete behar ditu eskatzaileak